

Markos Zapiain

Ez dakizun tren baten zain

Hil egin zaigu Joxe Azurmendi. Heriotzari buruz ere idatzi zuen, batez ere *Azken egunak Gandiagarekin* liburuan, doluetan batek baino gehiagok lagun izan duena. Ez du hil-beilarik eta hiletarik nahi izan: ezohiko ukoa gurean, enigmatikoa bezain esanguratsua itxuraz.

Joan zaigu Joxe, heriotzaz pentsatu nahiak eragiten dituen zailtasunen berri inork ez bezala eman duen euskalduna. Heriotza ez baita filosofiako gai bat besteen artean, besteen tankerakoa: gorputzaren eta arimaren arteko lotura, giza bereizgarria gainerako animalien artean, botere politikoaren legitimazio moldeak, edertasunaren eta simetria-
ren arteko harremanak... Gai horietako gehienek ez dute erakarri filosofoen arreta baizik. Aitzitik, kirolariak, txikiteroak, dendariak eta edonork du heriotza bere. Horregatik joko zuen beharbada Joxek maizago poetengana filosofoengana baino, heriotzaz aritzeko orduan: Gilgamesh, Carmina Burana, Shakespeare, Gandiaga...

Etenik gabe dugu heriotza alboan. Senideen eta ingurukoen heriotzek, albistegietakoek eta fikzioetakoek, txikitandik eta ezinbestez garamatzate heriotza kontuan hartzera. Ez da gauza bera, ordea, kontuan hartzea eta pentsatzea, fundamentuzko zerbait esatea. Sarritan, heriotza kontuan hartu, eta erremediorik gabe ahultzen, isiltzen eta desagertzen da pentsamendua. Horregatik ere izan bide dira barneko-
iakoak heriotzaren gaineko poeten esanak filosofoenak baino.

Gure tradizioetan, erlijioak ase du oroz gain heriotzari nolabaiteko zentzua emateko behar humano sakona, baina erlijioaren hizkera hori galdu egin zuen Joxek, eta ez du alternatibarik aurkitu. Heriotzaz gaur egun ganoraz aritzeko ezina azpimarratu du heriotzaz gurean ganora handienaz aritu den filosofoak.

Azurmendiren esanetan, heriotzaren agerpenik gogor eta gordinena azkeneko unea baldin bada ere –eta hildakoez joandakoan uzten du-

ten hutsunea–, nabarmentzekoak dira halaber bizialdian barrena sufritzen ditugun heriotza txikiak; abiatzea pittin bat hiltzea dela diote frantsesek, eta partierez beterik izaten dira bizitzak. Azurmendik bere esperientzia propioaz diharduela dirudi hemen:

Hautzaroko eskola lagunak, batzuk gero sekula gehiago ikusi ez ditugunak; estudiantetako hiriak atzerrian, edo han alditxo bat inoiz bizi izan zarenak, eta orduko hainbat lagun edo ezagun, gero sakabanatu, haiekin ez baituzu harremanik gorde, etab., zenbat aldiz ez dituzu gogoratu! Joanak joan.

Pertsonalak ematen dute adibide horiek ere, heriotzazantzko denboraren joanak ez duela atzera bueltarik darakutsatenak:

Hitz batekin laguna kontsolatzeko izan zenuen posibilitatea, eta esan ez zenuena, ez zenuelako momentuan asmatu, edo ez zinelako ahalegindu behar bezala, ez da txarkeria kontua edo ez, baina ja ez da inoiz izango. Ez dauka zerikusirik moralarekin edo erlijioarekin. Bakarrik, ez da. Izan zitzakeen ondorioak, ez dira izango munduan. Ez dago bigarren aukerarik. Entzun nahi izan ez zenuen telefono dei angustiazkoa, inon ez da sekula entzungo. Itxaropen ketu bat da. Eta egin duzuna ere, pasea da ja, itzali da, sekula egin ez balitz bezala da nolabait. Gogoratzen duzu, baina ez da, beste denbora bat da orain. Ez dago iraupenik. Ez dago errepikarik. Ez dago aldatzeko modurik, iragana berregiterik.

Metafora ikaragarri honekin adierazten du Azurmendik giza kondizioa: «Beti geltoki batean bezala zaude, ez dakizun tren baten zain, denak joan eta gero».

Hain zuzen, trenari loturiko hipotesi jakingarri hauxe adierazi du Amañok Joxek hil-beilarik nahi ez izanaz:

Ohikoa egiteko ez dago pentsatu beharrik. Ezohikoa egiteko, ordea, sakon eta luzaro pentsatu behar da. Eta Joxe, lehen eta behingoz, pentsalaria zen. Baina paradoxa bada ere, sumatzen dut kasu honetan ez zuela lar pentsatu beharrik izan. Segurutik aspaldidantik zekien zer egin. Hor ez dago enigmatik. Trena hartu eta kitto.